# MUGIKORTASUN PROGRAMETARAKO ESKAERA PROZEDURA

**Edukia**

1.- MUGIKORTASUNAK KONTSULTATZEA ........ 1

2- MUGIKORTASUN PROGRAMA BATERAKO ESKAERA EGITEKO MODUA URRATSEZ URRATS 4

3- ESKAERA ALDATZEA ........ 16

4.- ARGIBIDEAK ........ 17

***GARRANTZITSUA: eskuliburu honetako datuak ez dira errealak. Kasu batzuetan, datuak ezabatu dira, Datuak Babesteko Legeagatik.***

## 1.- MUGIKORTASUNAK KONTSULTATZEA

Ikasleek **UNIBERTSITATE TRUKEA** aukera dute GAUR aplikazioaren beren profilean, goitibeherako hiru atalekin: kontsultak, eskaerak eta konpromisoa. Hiru atal horietako edozeinetan kokatuko dira, kontsultatu beharreko aukera hautatzeko.




**UNIBERTSITATE TRUKEA-KONTSULTAK-TRUKEKO MUGIKORTASUNA** hautatuz, ikasleak ikus dezake zer mugikortasun aukerak dituen matrikulatuta dagoen ikasketa planean.




Ikasleak bere ikastegia hautatu eta **IKASTEGIA** izeneko pantailan sartuko da. Pantaila horretan, ikastegiko idazkariaren eta koordinatzailearen harremanetarako datuak aurkituko ditu. (Adibide honetan ez dira ikusten).

Pantailaren erdian norako posibleak ikus daitezke. Ezkerreko zutabean, bilaketa irizpideak hauta daitezke, bilaketa mugatzeko parametro baten edo gehiagoren arabera.

Mugikortasun programak blokeetan bereizita daude, hauta daitezkeen norakoei buruzko informazioarekin: **(Erasmus+, Latinoamerika, Beste norakoak, Sicue) programa**; Herrialdea,

Helmugako unibertsitatea, ikasketa arloa, plazak eta hilabete kopurua. Adibidez: 5 plaza eta 4 hilabete agertzen badira, 5 ikaslek 4 hilabeteko egonaldia egin dezaketela esan nahi du.

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Araba

Letren Fakultatea

Bilaketa ikastegiz

Programa

Herrialdea

Helmugako unibertsitatea

Arloa / Titulazioa

Bilatu Garbitu

**Erasmus +**

Unibertsitate arteko trukatze-programa, Europa

Informazio gehiago Ikusi baldintzak Ikusi jarraibideak

| Herrialdea | Helmugako unibertsitatea | Arloa | Plazak | Hilabete |
|---|---|---|---|---|
| Alemania | Christian-Albrechts-Universität zu Kiel | 222-idiomas y filologia | 2 | 9 |
| | Freie Universität Berlin | 222-idiomas y filologia | 1 | 10 |
| | Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg | 222-idiomas y filologia | 2 | 10 |
| | Friedrich-Schiller-Universität Jena | 223-lengua materna | 2 | 9 |
| | Johann Wolfgang Goethe-Universität Frankfurt am Main | 222-idiomas y filologia | 6 | 10 |
| | PHILLIPPS-UNIVERSITÄT MARBURG | 023-idiomas | 1 | 9 |
| | Technische Universität Berlin | 222-idiomas y filologia | 2 | 9 |
| | UNIVERSITAET TRIER | 222-idiomas y filologia | 1 | 9 |
| | Universität Leipzig | 222-idiomas y filologia | 2 | 5 |
| | | 222-idiomas y filologia | 1 | 10 |
| | Universität Bremen | 222-idiomas y filologia | 2 | 10 |
| | Universität Hamburg | 222-idiomas y filologia | 3 | 6 |
| | | 222-idiomas y filologia | 2 | 9 |
| | Universität Konstanz | 222-idiomas y filologia | 1 | 10 |
| | | 222-idiomas y filologia | 4 | 5 |
| | Universität Osnabrück | 222-idiomas y filologia | 1 | 10 |
| | | 222-idiomas y filologia | 2 | 5 |
| | Universität Passau | 222-idiomas y filologia | 2 | 6 |
| | Universität Potsdam | 222-idiomas y filologia | 2 | 5 |
| | Universität zu Köln | 222-idiomas y filologia | 2 | 6 |
| Austria | Universität Klagenfurt | 023-idiomas | 2 | 5 |

**Latino-Amerika**

Unibertsitate arteko programa, Latino-Amerika

Informazio gehiago Ikusi baldintzak Ikusi jarraibideak

| Herrialdea | Helmugako unibertsitatea | Plazak | Lauhilabetealdi | Plazak partekatzen ditu |
|---|---|---|---|---|
| Argentina | Universidad Católica de Córdoba | 2 | 3 | Bai |
| | Universidad Nacional de la Plata | 5 | 10 | Bai |
| | Universidad Nacional Tres de Febrero | 2 | 4 | Ez |
| Bolivia | Universidad Privada de Santa Cruz de la Sierra | 6 | 12 | Bai |
| Brasil | Universidade do Estado Santa Catarina | 3 | 6 | Bai |

**Bestelako helmugak**

Unibertsitate arteko programa, Beste Norako Batzuk

Informazio gehiago Ikusi baldintzak Ikusi jarraibideak

| Herrialdea | Helmugako unibertsitatea | Plazak | Lauhilabetealdi | Plazak partekatzen ditu |
|---|---|---|---|---|
| Amerikako Estatu Batuak | Boise State University | 1 | 2 | Bai |
| | North Carolina State University | 5 | 10 | Bai |
| | San Diego State University | 3 | 6 | Bai |
| | UNIVERSITY OF TEXAS AT AUSTIN | 5 | 10 | Bai |
| Azerbaijan | AZERBAIJAN UNIVERSITY OF LANGUAGES | 1 | 2 | Ez |
| Errusia | Lomonosov Moscow State University -Univrsidad Estatal del Moscú Lomonosov | 3 | 6 | Ez |

Programa bakoitzak hiru atal ditu:

**Informazio gehiago:** UPV/EHUren Nazioarteko Harremanak atariko web orrira lotutako esteka; programari buruzko informazio guztia biltzen da webgune horretan.

**Ikusi baldintzak:** Programan parte hartzeko betebeharrak eta baldintzak biltzen dituen dokumentua irekitzen duen esteka. Ikasleak dokumentu hori irakurri behar du, eta hartan jasotako baldintzak bete, eskatu duen mugikortasuna onartua izan ondoren. Inprimatu egin daiteke.

**Ikusi argibideak:** Nazioarteko Harremanak webguneko OSO GARRANTZITSUA atalera lotuta dagoen esteka. Inprimatu egin daiteke.

## *MUGIKORTASUNEN IRAUPENARI BURUZKO OHAR GARRANTZITSUAK*

→Ikasleak, **lauhileko egonaldia (1. edo 2. lauhilekoa) egitekotan badabil**, **sei hilabete arteko iraupen plazak bakarrik aukeratu ditzake.**

→**ERASMUS+ PROGRAMA BERRIAK 7 HILABETEKO EGONALDIAK FINANTZATZEN DITU GEHIENEZ, HITZARMENEAN IZENPETZEN DEN MUGIKORTASUNAREN IRAUPENA**

**GORABEHERA. Hilabete gehigarriak beste iturri batzuen bidez finantzatu daitezke, hala dagokionean eta aurrekonturik izanez gero.**

## SEPIEKO BEKAK!

**Helmugako herrialdeko** bizi mailaren arabera **(3 talde)**

| | | |
|---|---|---|
| 1. taldea | Austria, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Italia, Liechtenstein, Norvegia, Erresuma Batua, Suedia | **300 € hilean** |
| 2. taldea | Alemania, Belgika, Zipre, Kroazia, Eslovenia, Espainia, Grezia, Islandia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal, Txekiar Errepublika eta Turkia | **250 € hilean** |
| 3. taldea | Bulgaria, Eslovakia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Errumania eta Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia | **200 € hilean** |

**GARRANTZITSUA:** Gogoratu Europar Batasunak ERASMUS+ programatik kanpo utzi duela **SUITZA**. Beraz, SUITZAko norakoak Beste norakoak programan sartu dira.

## HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK:

Oso garrantzitsua da atal hau irakurtzea, litekeena delako harrera unibertsitateak hizkuntza eskakizunak ezartzea. Harrera unibertsitateak ezartzen dizkizun hizkuntza mailak eta akreditazioak kontsulta ditzakezu.

**LUPA** botoia: informazio gehigarri garrantzitsua izan dezakeen leiho bat zabaltzen du. Kasu honetan, ikasleari jakinarazten zaio beharrezkoa dela aleman ezagutzak eta ziurtagiri jakin batzuk edukitzea egonaldi bat egiteko unibertsitate honetan. Gainera, ikasleentzako informazio iruzkinen bat ere izan dezake:




***GARRANTSITSUA**: "denak" Unibertsitate hauetakoren batean plaza eskatu baduzu (**BESTE NORAKOAK PROGRAMA ETA AMERIKA LATINOA)**, gogoratu aukeraketa Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak egingo duela; hortaz, ezarritako epean bidali beharko dituzu mugikortasun horretarako eskatutako hizkuntza-ziurtagiriak helbide elektronikora: movilidad.internacional@ehu.eus*

## 2- MUGIKORTASUN PROGRAMA BATERAKO ESKAERA EGITEKO MODUA URRATSEZ URRATS:

Ikasleak GAUR aplikazioan duen profilaren bidez egin behar du eskaera: **UNIBERTSITATE TRUKEA-ESKAERAK-TRUKEKO PROGRAMAK:**




Hurrengo pantailan, datu pertsonalen eta helbidearen blokea aurkituko du ikasleak, jada beteta.

Garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea: <u>daturen bat gaizki badago edo aldatu egin nahi bada, ikasleak ikastegiko Idazkaritzara joan behar du</u>, ez Nazioarteko Harremanetarako Bulegora.

Bankuko datuen eremuak ere beteta ager daitezke, baldin eta aurretik mugikortasunen bat eskatu bada. Kasu horretan, datuak berrikusi egin behar dira.

Ikasleak bere kontu korrontearen datuak emango ditu, Nazioarteko Harremanetarako Bulegotik zuzenean jasoko dituen laguntzak ordaintzeko erabiliko dena. Beraz, ezinbestekoa da: **<u>IKASLEA TITULARRA IZATEA</u>**


Hauek dira zure datuak. Aldaketarik egin nahi baduzu, joan zure ikastegiko idazkaritzara

**Datu pertsonalak**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Agiri mota | NAN | Agiri-zk. | |
| 1. abizena | APELLIDO174934 | 2. abizena | APELLIDO2 |
| Izena | NOMBRE | Jaioteguna | |
| Sexua | Gizonezkoa | Ezgaitasuna | Ez |
| Herrialdea | Espainia | Nazionalitatea | espainiar |
| Sailez | | Herria | |

**Helbidea**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Kale mota | | | | Kale-izena | | | |
| Atari-zk. | | Solairua | 3º | Letra | A | Eskailera | |
| Herrialdea | Espainia | | | Telefonoa | | PK | 01009 |
| Probintzia | Araba | | | Udalerria | Gasteiz | | |

**Bankuko datuak**

**Titularra**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Agiri mota | NAN | Dokumentu-zk. | xxxxxxxxxx |
| 1. abizena | APELLIDO174934 | | |
| 2. abizena | APELLIDO2 | | |
| Izena | NOMBRE | | |

**IBAN kontua**

ES 00 00000000000000000000 BIC

Adierazi zure banku-kontuaren zenbakia, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak kudeatutako mugikortasun-programetako diru-laguntzak jasotzeko dagoen koadroan.

Gogoratu, zuk izan behar duzula kontu horretako lehenengo titularra.

Banku-kontu honetako datuak eta unibertsitateko gestio akademikoaren erregistroan daudenak desberdinak izan daitezke.

Jarraitu

**KONTU KORRONTEAREN DATU GUZTIEK <u>ZUZENAK ETA ZENBAKIZKOAK</u> IZAN BEHAR DUTE, PUNTURIK, KOMARIK ETA INOLAKO ZEINURIK GABE. Bestela, pantaila bat irekiko da, errore mezu batekin.**

**OHARRA: sistemak kontu korronte nazionalak bakarrik onartzen ditu, eta BIC eremua zuri utziko du.**

**EGIAZTA EZAZU: OSO DATU GARRANTZITSUA DA. KONTU KORRONTEA GAIZKI SARTUZ GERO, ERROREAK ETA ITZULKETAK IZAN DAITEZKE, ETA ATZERATU EGIN DAITEKE LAGUNTZAREN KOBRANTZA.**

Ikasleak nahitaez sartu behar ditu bankuko datuak, hurrengo pantailara sartu ahal izateko, **JARRAITU** botoia erabilita.

Pantaila horretan, ikaslearen datu akademikoak agertzen dira, eta “Eguneratu datu pertsonalak” blokean, harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoa nahitaez sartu behar du (jada agertzen badira, berrikusi egin behar ditu, eta aldatu, behar izanez gero).

**IKASLEAK KONTUAN HARTU BEHAR DU, ETA HALA JAKINARAZTEN ZAIO, JAKINARAZPENAK ERAKUNDEKO POSTA ELEKTRONIKOAREN (IKASLE) BIDEZ JASOKO DITUELA. BERAZ, MEZU HORIEK BERBIDERATU BEHARKO DITU EGUNERO ERABILI OHI DUEN HELBIDERA.**




Datuak sartu edo egiaztatu ondoren, hurrengo pantailan sar daiteke, **JARRAITU** botoia sakatuta. Eremu guztiak beteta agertuko dira, adibide honetan datuak agertzen ez badira ere, Datuak Babesteko Legeagatik (DBL).



**Eskaera mota**

◉ Latino-Amerika
- Bestelako helmugak
- Erasmus +

Atzera | Eskaera berria

**ESKAERA BERRIA** botoia sakatuta, ikaslea hurrengo pantailan sartuko da. Mugikortasun aukerak agertuko zaizkio, programen arabera.




"Datu akademikoak" blokea beteta agertuko da (datuak ezabatu dira, DBLgatik). Pantailan mugitzeko, eta norako guztiak ikusten ez badira, eskuineko barra erabil daiteke.

**LUPA** botoia ere erabil daiteke (ikus "Mugikortasun kontsulta" atala zertarako balio duen jakiteko).

Adibide honetan, Latinoamerika programan parte hartzen duten unibertsitateak ikus daitezke, ezkerreko zutabean. Gainera, bilaketa mugatu daiteke, herrialdeka, programa bakoitzaren barnean, HAUTATU botoia erabilita.

**SASKIA** botoiaren bidez (norako bakoitzaren eskuinean), norako bat baino gehiago aukeratu daitezke, programa berekoak edo beste programa batzuetakoak: **8 aukera** gehien jota. Norakoak erantsi ahala, "Hautatutako helmugak" blokean agertuz joango dira.

Pantaila honetan norako bat baino gehiago hautatu dira:



Norako bat hautatzean akatsik eginez gero, ezabatu egin daiteke, **ZAKARRONTZIA** botoia erabilita, eta beste norako bat hautatu, **SASKIA** botoiaren bidez.

Baimendutakoak baino norako gehiago aukeratzen direnean, sistemak errore abisua ematen du, eta ikasleak gehiegiz aukeratu dituenak ezabatu behar ditu.

Hurrengo pantailan sartzeko, **JARRAITU** botoia sakatu behar da.

"Datu akademikoak" blokea beteta agertuko da (datuak ezabatu dira, DBLgatik).

Pantaila honetan, egin duen hautaketa **berrikus** dezake berriro ikasleak, eta **nahastu egin bada edo interesatzen ez bazaio**, atzera egin dezake aurreko pantailara, ATZERA botoia sakatuta, **norakoak ezabatzeko eta dagozkion aldaketak** egiteko. Gainera, hautatutako norakoen ordena ere alda dezake, eta, lauhileko bateko mugikortasunen kasuan, egonaldia egin nahi duen lauhilekoa aukeratu.


Datu akademikoak

| | | | |
|---|---|---|---|
| NAN | | Ikaslea | |
| Ikastegia | | Titulazioa | |

Egiaztatu eta zehaztu zure lehentasun-ordena eta egonaldiaren iraupena.

Hautatutako helmugak

| Eskaera-urtea | 2015/16 | Bestelako aukeretan interesatua | ☐ |
|---|---|---|---|

| Programa | Helmugako unibertsitatea | Ord. zk. | Iraupena | | Lauhil. | Haut. lauhil. | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erasmus | Universität Hamburg (Alemania) | 1 | 9 | Hilabete | | | |
| Erasmus | Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg (Alemania) | 2 | 10 | Hilabete | | | |
| Latino-Amerika | Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 3 | 3 | Lauhilabetealdi | 1 | 1º | |
| Latino-Amerika | Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 4 | 4 | Lauhilabetealdi | 1 | 1º | |

Azalpen-memoria

Justifikatu mugikortasun-eskaera; horretarako, adierazi UPV-EHUn zein ikasturtetan matrikulatuta zauden, maila, ikasgaiak, KAP edo helmugako unibertsitatean egingo duzun masterra eta arrazoitu zure eskaera:

En dichas universidades hay asignaturas que estan relacionadas con mi estudio

Aurreko Erasmus ikasle

| Ikasketen ad. | ☐ | Urtea | |
|---|---|---|---|
| Non | | Ikasketak | |

Atzera Jarraitu

**-AZALPEN MEMORIA** nahitaez bete beharreko eremu bat da, eta ikastegiak baloratu dezake, hautapen prozesuan. Kontsultatu zure ikastegiko webgunean eta galdetu koordinatzaileari zer datu sartu behar diren memorian.

**-AURREKO ERASMUS IKASLEA**: beste unibertsitate batean edo UPV/EHUn ERASMUS mugikortasun programan parte hartu duen ikasleak **IKASKETEN AD.** markatu behar du, eta **URTEA, NON** eta **IKASKETAK** eremuak aktibatuko zaizkio, ondoko adibidean ikus daitekeen moduan. Erasmus **ikasketak edo praktikak** mugikortasun programan parte hartu ez badu, ez du adierazle hori markatu beharko.

**-BESTELAKO AUKERETAN INTERESATUA botoia:** aukeratu dituen 8 norakoez gainera, ikasleak adieraz dezake interesatuta dagoen beste aukera batzuetan, eskatu dituen norakoetatik bakar bat ere lortzen ez badu.

Datu guztiak egiaztatu ondoren, hurrengo pantailan sar daiteke, **JARRAITU** botoia sakatuta.

**HURRENGO PANTAILA AGERTZEN DA, DATUAK BERRIRO BERRIKUSTEA ESKATZEN DIONA IKASLEARI. AKATSIK BADAGO EDO DATUREN BAT ALDATU NAHI IZAN EZ GERO, AURREKO PANTAILETARA ITZUL DAITEKE, ATZERA BOTOIAREN BIDEZ.**

Behin datu guztiak egiaztatuta, eskaera prozesua amaitzen da, **AMAITU** botoia erabilita.

**Datu akademikoak**

| | |
|---|---|
| NAN | Ikaslea |
| Ikastegia | Titulazioa |

**Zure eskaera amaitu baino lehen, berrikusi datuak.**

**Hautatutako helmugak**

Eskaera-urtea: 2015/16 — Bestelako aukeretan interesatua ☐

| Programa | Helmugako unibertsitatea | Ord. zk. | Iraupena | | Lauhil. | Haut. lauhil. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Erasmus | Universität Hamburg (Alemania) | 1 | 9 | Hilabete | | |
| Erasmus | Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg (Alemania) | 2 | 10 | Hilabete | | |
| Latino-Amerika | Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 3 | 3 | Lauhilabetealdi | 1 | 1 |
| Latino-Amerika | Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 4 | 4 | Lauhilabetealdi | 1 | 1 |

**Azalpen-memoria**

**Justifikatu mugikortasun-eskaera; horretarako, adierazi UPV-EHUn zein ikasturtetan matrikulatuta zauden, maila, ikasgaiak, KAP edo helmugako unibertsitatean egingo duzun masterra eta arrazoitu zure eskaera:**

En dichas universidades hay asignaturas que estan relacionadas con mi estudio

**Aurreko Erasmus ikasle**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ikasketen ad. | ☐ | Urtea | |
| Non | | Ikasketak | |

Atzera | Amaitu

Hurrengo pantaila agertuko da, eskaera zuzen egin dela eta adjudikatzeko zain gelditzen dela adierazten duena.

**Eskaera aldatu da.**

**Datu akademikoak**

| | |
|---|---|
| NAN | Ikaslea |
| Ikastegia | Titulazioa |

**Eskaeraren datuak**

| Eskaera-urtea | Eskaera-zk. | Eskaera-egoera |
|---|---|---|
| | 14868 | Adjudikatzeko zain |

Inprimatu

**INPRIMATU** botoiaren bidez, ikasleak eskaeraren ordezkagiria inprimatu dezake, bere ikastegian dagokion epean entregatzeko (**IKASTEGIAK HALA ESKATUZ GERO**), hizkuntza ziurtagiriekin batera.

Hurrengo pantailan, inprimatutako eskaera bat ikus daiteke (datu pertsonalak ezabatuta, DBLgatik).

**ERASMUS**
**LATINO-AMERIKA**
**BESTE NORAKOAK**

# Ikasturtea :

# Eskaera

## 1) Datu pertsonalak

Dokum entazioa bi daltzeko helbi de ir aunk orr a
Bank uk o datuak

## 2) Datu akademikoak

Adierazi EHUko zein ikasturtetan eta ikastegitan egongo zaren matrikulatuta, atzerriko egonaldian egongo zarenean

Maila: **2** Ikastegia **Letren Fakultatea**

Titulazioa: **Filologiako Gradua** Campusa: **Araba**

## 3) Mugikortasun-datuak

| LEHENTASUN-ZENBAKIA | UNIBERTSITATEA | HERRIALDEA | Adierazi lauhilekoa edo lauhilekoak* |
|---|---|---|---|
| **1** | **Universität Hamburg** | **Alemania** | **Ikasturte osoa** |
| **2** | **Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg** | **Alemania** | **Ikasturte osoa** |
| **3** | **Universidad Católica de Córdoba** | **Argentina** | **Lehena** |
| **4** | **Universidad Nacional Tres de Febrero** | **Argentina** | **Lehena** |

## 4) "ERASMUS" ikasketen aurreko bekarik

Ez

Deklaratzen dut aurretik aipatutako datuak benetakoak direla

## 5) Eskatutako 8 nazioarteko helmugatatik bat ere ez badizute hautatzen, bestelako helmugaren bat nahiko zenuke zure ikastegiko koordinatzaileak proposatuz gero:

Ez

Data: 2015eko azaroaren 13an

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizuegu inprimaki honetako datuak Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro informatiko batean sartuko direla

# Ikasturtea :

Fecha:

AZALPEN-MEMORIA:

Justifikatu mugikortasun-eskaera, adierazi UPV-EHUn zein ikasturtetan matrikulatuta zauden, maila, ikasgaiak, KAP edo helmugako unibertsitatean egingo duzun masterra eta arrazoitu zure eskaera.

En dichas universidades hay asignaturas que estan relacionadas con mi estudio

Ikasleak mezu elektroniko hau jasoko du bere **IKASLE postontzian**:

----------------- ------------ ------------------- ------------ ------------------- ------------ ------------------- ------------ -----

Ikasle agurgarria:

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetzaren mugikortasun-programetan parte hartu ahal izateko egin duzun on-line eskaera dela-eta, gogorarazten dizugu:

*Zure mugikortasun-eskaeraren ebaluaziorako kontuan har daitezen, dagozkion hizkuntza-ziurtagiriak zure ikastegian edo Nazioarteko Harremanetarako Bulegoan aurkeztu beharko dituzu ezarritako epean.*

***GARRANTSITSUA**: Amerika Latinoa eta Beste Norako Batzuk programen kasuan, zeinetan Nazioarteko Harremanen bulegoak esleitzen dituen (atzerriko unibertsitateen taulako IKASTEGIAK zutabean DENAK gisa markatutakoak) atzerriko unibertsitateak eskatutako hizkuntza agiriaren kopia aurkeztu beharko da nahitaez Leioako Nazioarteko Harremanen bulegoan, eskaerak aurkezteko epearen barruan. Agiri hau aurkezteko Nazioarteko Harremanen Bulegoaren helbide elektronikora bidali behar du ikasleak: movilidad.internacional@ehu.eus*

On-line eskaera gauzatu eta eskaerak egiteko epea bukatu ondoren, egun izango dituzu (XXko XX XXtik XXra, biak barne), eman gabeko agiriak aurkezteko.

Zure eskaeraren egoeraren berri zure profilaren bidez izango duzu eta XXren XXan plazen behin betiko esleipena eta itxarote-zerrendan geratutako eskaerak argitaratuko dira.

Eskerrik asko eskaera egiteagatik!

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa

http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/home

----------------- ------------ ------------------- ------------ ------------------- ------------ ------------------- --------

Ikasleak mezu hau jasoko du 8 norako arte eransteko bere eskaera aldatzera sartzen den aldi bakoitzean, ondoren azaltzen den moduan.

Ikaslea aplikaziotik irten daiteke, eskaera egin ondoren, GAUR aplikazioaren menuko **IRTEN** sakatuta:




Ikasleak noiznahi **<u>Kontsulta</u>** dezake bere eskaera zer egoeratan dagoen:



Urte desberdinetan eginiko eskaerak baditu, pantaila hau agertuko zaio, kontsultatu nahi duen urtea sartzeko.

Datu pertsonalak ezabatu dira goiburutik, DBLgatik:



Datu akademikoak

NAN

Ikastegia

Programak

Beste eskaerak

Diru-laguntzak

Egindako eskaerak mugikortasun-urte honetarako: 2015/16

| Eskaera-zk. | 14868 | Inprimakia |
|---|---|---|

| Lehentasun-zk. | Programa | Helmugako unibertsitatea | Iraupena | Lauhileko-zk. | Egoera | Eskaera-data |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Erasmus + | Universität Hamburg (Alemania) | 9 Hilab | | Adjudikatzeko zain | 2015/11/13 |
| 2 | | Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg (Alemania) | 10 Hilab | | Adjudikatzeko zain | 2015/11/13 |
| 3 | Latino-Amerika | Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 1 Lauhi | 1 | Adjudikatzeko zain | 2015/12/01 |
| 4 | | Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 1 Lauhi | 1 | Adjudikatzeko zain | 2015/12/01 |

Xehetasunak

**INPRIMAKIA BOTOIAREN BIDEZ, ESKAERAREN ORDEZKAGIRIA <u>INPRIMATU DAITEKE BERRIRO,</u> NAHI BEZAIN BAT ALDIZ.**

Ikasleak bere eskaeraren egoera kontsulta dezake pantailan (ADJUDIKATZEKO ZAIN, kasu honetan). Behin plazak adjudikatuta, egoera aldatu egingo da.

Gainera, **XEHETASUNAK** botoia erabilita, norako bat hautatu ondoren, hari buruzko datu gehiago lor daitezke:



Datu akademikoak

NAN

Ikastegia

Programak

Beste eskaerak

Diru-laguntzak

Eskaera

| Eskaera-urtea | 2015/16 | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskaera-zk. | 14868 | Lehentasun-zk. | 1 | Programa | Erasmus + |
| Helmugako unibertsitatea | Universität Hamburg | | | Herrialdea | Alemania |
| Hilabete | 9 | Lauhileko-zk. | | | |
| Egoera | Adjudikatzeko zain | Eskaera-data | 2015/11/13 | | |

Atzera

**ATZERA** botoia sakatuta, mugikortasun guztiak agertzen diren hasierako pantailara itzultzen da, eta aplikaziotik **IRTEN** daiteke.

# 3- ESKAERA ALDATZEA

8 aukerak bete ez direnean, ikaslea GAUR aplikazioko bere profiletik sar daiteke, eskabide epea amaitu ez bada, norako berriak eransteko soilik, 8 aukerak osatu arte.

**EZIN IZANGO DU AURRETIK HAUTATU DUEN NORAKORIK ALDATU ETA BERRIRO URRATS GUZTIAK EGIN BEHARKO DITU AMAIERARA IRITSI ARTE.**

Adibide honetan, ikasleak 4 aukera hautatu ditu bere mugikortasun eskaeran, eta berriro sartu da, epearen barnean, beste norako bat eransteko.



Datu akademikoak

| | |
|---|---|
| NAN | Ikaslea |
| Ikastegia | Titulazioa |



Unibertsitate arteko programak
- Latino-Amerika
- Erasmus +
- Bestelako helmugak

Herrialdea: Hautatu herrialdea — Hautatu

Trukatze-aukerak

| Helmugako unibertsitatea | Plazak | Iraupena | | |
|---|---|---|---|---|
| Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 2 | 3 | Lauhilabetealdi | |
| Universidad Nacional de la Plata (Argentina) | 5 | 10 | Lauhilabetealdi | |
| Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 2 | 4 | Lauhilabetealdi | |
| Universidad Privada de Santa Cruz de la Sierra (Bolivia) | 6 | 12 | Lauhilabetealdi | |
| Universidade do Estado Santa Catarina (Brasil) | 3 | 6 | Lauhilabetealdi | |

Hautatutako helmugak

Eskaera-urtea: 2015/16

| Programa | Helmugako unibertsitatea | Plazak | Iraupena | |
|---|---|---|---|---|
| Erasmus + | Universität Hamburg (Alemania) | 2 | 9 | Hilabete |
| Erasmus + | Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg (Alemania) | 2 | 10 | Hilabete |
| Latino-Amerika | Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 2 | 3 | Lauhilabetealdi |
| Latino-Amerika | Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 2 | 4 | Lauhilabetealdi |

Atzera Jarraitu

Ikasleak beste norako bat hautatu du, pantailan ikus daitekeen moduan.


Datu akademikoak

| | |
|---|---|
| NAN | Ikaslea |
| Ikastegia | Titulazioa |

Unibertsitate arteko programak
Latino-Amerika
Erasmus +
Bestelako helmugak
Herrialdea
Hautatu herrialdea
Hautatu

Trukatze-aukerak

| Helmugako unibertsitatea | Plazak | Iraupena | | |
|---|---|---|---|---|
| Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 2 | 3 | Lauhilabetealdi | |
| Universidad Nacional de la Plata (Argentina) | 5 | 10 | Lauhilabetealdi | |
| Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 2 | 4 | Lauhilabetealdi | |
| Universidad Privada de Santa Cruz de la Sierra (Bolivia) | 6 | 12 | Lauhilabetealdi | |
| Universidade do Estado Santa Catarina (Brasil) | 3 | 6 | Lauhilabetealdi | |
| UNIVERSIDADE ESTADUAL DO CENTRO -OESTE-UNICENTRO (Brasil) | 4 | 8 | Lauhilabetealdi | |

Hautatutako helmugak

Eskaera-urtea 2015/16

| Programa | Helmugako unibertsitatea | Plazak | Iraupena | |
|---|---|---|---|---|
| Erasmus + | Universität Hamburg (Alemania) | 2 | 9 | Hilabete |
| Erasmus + | Friedrich-Alexander-Universitaet Erlangen-Nuernberg (Alemania) | 2 | 10 | Hilabete |
| Latino-Amerika | Universidad Católica de Córdoba (Argentina) | 2 | 3 | Lauhilabetealdi |
| Latino-Amerika | Universidad Nacional Tres de Febrero (Argentina) | 2 | 4 | Lauhilabetealdi |
| Latino-Amerika | Universidade do Estado Santa Catarina (Brasil) | 3 | 6 | Lauhilabetealdi |
| Latino-Amerika | UNIVERSIDADE ESTADUAL DO CENTRO -OESTE-UNICENTRO (Brasil) | 4 | 8 | Lauhilabetealdi |

Ikasleak egiaztatu egin du ezin direla aldatu aurreko norakoak. Soilik alda ditzake sartu berri dituen mugikortasunen lauhilekoak eta haien lehentasun ordena.

Ikasleak kontuan hartu behar du aurretik aipatutako mezua jasoko duela bere IKASLE postontzian bere eskaera aldatzera sartzen den bakoitzean.

# 4.- ARGIBIDEAK

## 4.1 SICUE PROGRAMAN PARTE HARTZEA

ERASMUS-LA-BN deialdi honetan plaza bat lortzen duen ikasleak ezin izango du SICUE deialdian parte hartu, plazari uko egin arren.

**4.2 Mugikortasuna onartu edo uko egin behar da lehen itzulian lortu ondoren, adjudikazioen bigarren itzulian parte hartu nahi bada.** Ikasleak, Nazioarteko Harremanak webgunean, MUGIKORTASUNA ONARTZEKO EDO EZ ONARTZEKO ARGIBIDEAK URRATSEZ URRATS atala kontsulta dezake.

**4.3 PENALIZAZIOA:** Ikasle bat eskaera bat egiten saiatzen bada eta AURREKO DEIALDIAN hon ako arrazoi hauengatik **PENALIZAZIOA** jaso badu:

- Uko edo onartu ez-egiteagatik; hau da, adierazitako datetan uko ez egiteagatik.
- Matrikulatuta egoteko baldintza ez betetzeagatik, gutxienez graduko bigarren mailan edo masterreko lehenengo mailan.
- Deialdian eta ikasleen betebeharretan jasotako beste edozein baldintza ez betetzeagatik.

**EZIN IZANGO DA SISTEMAN SARTU ESKAERA BAT EGITEKO eta mezu agertuko zaio pantailan.**